

# Munduko Poesia Kaierak: 50 poeta etxean eta 14 bidean

---

**SARRERA:** ISABEL ETXEBERRIA RAMÍREZ

**ITZULPENAK:** JON ALONSO, GOTZON BARANDIARAN, JOXE MARI BERASATEGI ZURUTUZA, AITOR BLANCO LEOZ, ITXARO BORDA, XABI BORDA, PATXI DE VICENTE, JUAN GARZIA, KOLDO IZAGIRRE, JOANNES JAUREGI, AINHOA MENDILUZE ORMAETXEA, BEGO MONTORIO, UXUE REY, BEÑAT SARASOLA

2014an, Susa argitaletxeak Munduko Poesia Kaierak bilduma abiatu zuen, Beñat Sarasolaren zuzendaritzapean, mundu zabaleko poetak euskaratu eta plazaratzeko asmoz. Hamar urteko ibilbide honetan, 50 poetaren antologia bana argitaratu ditu bildumak: 40 kaier 2021. urtera bitartean, Beñat Sarasola gidari zela, eta beste 10 kaier 2022an Maialen Berasategik eta Isabel Etxeberriak zuzendaritzaren lekukoa hartu zutenetik gaur egun arte. 50 poeta, 15 hizkuntzatan aritu zirenak, 45 itzultzailek euskaraturik. Edo, bestela esanda: 3.200 orrialde, 85.000 bertso-lerro, 5.350 gramo poesia.

Iraganari so egiteko balia genezake efemeridea, baina nahiago dugu datorrenari begira jarri. Hala, martxan diren kaieretako batzuen erakusgarriak ekarri nahi izan ditugu artikulu honetara. 14 poeta, 14 poema, 14 itzultzaile. Alemanez, arabieraz, frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez, italieraz, katalanez, okzitanieraz eta turkieraz sortutako poesia, euskaraz irakurgai.

Alabaina, kaieretan ohi ez bezala begietaratuko dizkizuegu oraingoan poemak. Munduko Poesia Kaierak bilduman, zentraltasun handia hartzen du poetak; baita itzultzaileak ere, neurri txikiagoan. Izan ere, poeten antologiak dira kaierak; poeta zehatz baten obra euskaraz bildu eta ezagutzera/dastatzera ematea dute helburu. Irakurleak une oro du gogoan norena (eta nork itzulia) den begien aurrean duen testua, eta hitzaurrean irakurritakoak poema testuinguru zehatz batean ainguratzen laguntzen dio. Oraingoan, bada, poemari eman nahi diogu protagonismoa: poema soilak aurkeztuko ditugu, beren inguruabar guztiez gabeturik. Izenburuaren araberrako ordena alfabetikoan aurkeztuko ditugu poemak, eta berdin jokatu dugu poeten

eta itzultzaileen izen-abizenekin, nork zer idatzi/itzuli duen zehaztu gabe. Mintzo daitezela poemak.

(Jolasetik ere badu honek, noski, eta, inori gaitzitu ez dakion, amaieran topatuko duzue erantzuna, hots, nork zer itzuli duen. Jatorrizko testuak ere amaieran kokatu ditugu, eta ez beren itzulpenen ondoan, nork zer idatzi/itzuli duen asmatzeko jolasa ez hondatzeko moduan baina era berean itzulpenak jatorrizko testuekin konparatzeko aukera eskaini nahian. Jatorrizko testuak itzulitako poemak hurrenkera berean ordenatuta daude; euskarazko izenburuen araberrako ordena alfabetikoan, alegia. Itzulpen guztiak jatorrizko testuetatik egin dira, arabierazkoa eta turkierazkoa izan ezik).

Hona hemen poeten zerrenda:

- Jorge Luis Borges (Buenos Aires, Argentina, 1899 – Geneva, Suitza, 1986)
- Mahmud Darwish (Al-Birwa, Palestinako Britainiar Mandatua, 1941 – Houston, Ameriketako Estatu Batuak, 2008)
- Kamala Das (Punnayarkulam, India, 1934 – Pune, India, 2009)
- Juan Gelman (Buenos Aires, Argentina, 1930 – Mexiko Hiria, Mexiko, 2014)
- Nâzim Hikmet (Tesalonika, Otomandar Inperioa, 1902 – Mosku, Sobietar Batasuna, 1963)
- Mascha Kaléko (Chrzanów, Austria-Hungariako Inperioa, 1907 – Zürich, Suitza, 1975)
- Bernat Manciet (Sabres, Akitania Berria, 1923 – Mont-de-Marsan, Akitania Berria, 2005)
- Miquel Martí i Pol (Roda de Ter, Katalunia, 1929 – Vic, Katalunia, 2003)
- Oscar Milosz (Čareja, Errusiako Inperioa, 1877 – Fontainebleau, Frantzia, 1939)
- Gabriela Mistral (Vicuña, Txile, 1889 – Hempstead, Ameriketako Estatu Batuak, 1957)
- Frank O'Hara (Baltimore, Ameriketako Estatu Batuak, 1926 – Mastic Beach, Ameriketako Estatu Batuak, 1966)
- Antonia Pozzi (Milan, Italia, 1912 – Milan, Italia, 1938)
- Jacques Prévert (Neuilly-sur-Seine, Frantzia, 1900 – Omonville-la-Petite, Frantzia, 1977)
- Manuel Vázquez Montalbán (Bartzelona, Katalunia, 1939 – Bangkok, Thailandia, 2003)

Itzultzaileena, berriz, hauxe:

- Jon Alonso
- Gotzon Barandiaran
- Joxe Mari Berasategi Zurutuza

- Aitor Blanco Leoz
- Itxaro Borda
- Xabi Borda
- Patxi De Vicente
- Juan Garzia
- Koldo Izagirre
- Joannes Jauregi
- Ainhoa Mendiluze Ormaetxea
- Bego Montorio
- Uxue Rey
- Beñat Sarasola

Eta, hirugarrenik, hona hemen poemen izenburuak:

- Antzoki zaharra
- Atenasko aireportuan
- Azaroa
- Barbara
- Coca Cola bat zurekin hartzea
- Eta, batik bat, ez ahaztu
- Hildakoak oro, horditurik
- Konfiantzak
- Laino
- Maitasun mutua
- Quand vous serez bien vieille
- Udazken melankolia
- XCVIII
- Zergatik suntsitu zuten aberria

## Itzulpenak

### Antzoki zaharra

Enara bat bezatzeko  
plana egin zenuen: zure maitasunaren  
uda luzean atxikitzea, ahantz zitzan ez soilik urtaro latzak  
eta atzean utzitako etxeak, baita bere izaera, hegan egiteko  
premia eta zeruko bidezidor amaigabeak ere. Ez nintzen  
zugana etorri beste gizon baten jakinduria biltzera, ezpada  
neu zer nintzen ikastera, eta ikasiz, hazten ikastera; baina  
ematen zenidan ikasgai oro zeure buruaz zen.  
Atsegin ematen zizuten nire gorputzaren erantzunak  
eta ohiko konbultsio arinek. Jariatu zenidan lerdea  
ahoa, isuri zintzaizkidan txoko eta arrakala guztietan,  
gantzutu zenuen nire irriks eskasa zure urin mingots-gozoez.  
Emazte deitzen zenidan. Zure teari sakarina botatzen  
erakutsi zenidan, eta bitaminak une egokian eskaintzen.  
Beldurrez uzkuertuta zure ego eskergaren azpian, olata  
magikoa jan eta ipotx bihurtu nintzen. Neure borondatea  
eta arrazoia galdu nituen; erantzun inkoherenteak ematen  
nizkien, ahapeka, zure galdera guztiei. Uda interesa galtzen  
hasi da. Gogoratzen ditut udazkeneko haize zakarragoak  
eta erretzen ari ziren hostoen kea. Zure gela beti argi  
artifizialez argituta dago; zure leihoak, beti itxita.  
Hain gutxi laguntzen du aire girotuak ere, non zeharo nagusi  
baita zure hatsaren urrin arra. Moztu eta ontzietan sartutako loreak  
giza izerdi usaina hartzen hasi dira. Kito kantak, kito dantza;  
nire burua antzoki zahar bat da, argi guztiak itzalita.  
Beti berbera da gizon indartsuaren teknika: dosi hilgarrietan  
zerbitzatzen du bere maitasuna, zeren maitasuna Nartziso  
ur ertzean baita, bere aurpegi bakartiarekin obsesionaturik,  
eta hala ere, azkenean, xede bat aurkitu behar du, askatasun  
aratz erabateko bat; nahi behar du ispiluak txiki-txiki  
eginda geratzea eta gau atseginak ura ezabatzea.

### **Atenasko aireportuan**

Aireportu artean sakabanatzen gaitu Atenasko aireportuak. «Non borrokatuko naiz?» galdetu du borrokalariak. «Non erdituko naiz zure umeaz?» garrasi emakume haurdun batek. «Non inbertituko dut nire dirua?» galdetu du funtzionarioak. «Niri bost zure dirua» erantzun dio intelektualak. «Nondik zatozte?» itaundu digute aduanazainek. Eta guk erantzun «Itsasotik!». «Nora zoazte?». «Itsasorantz» erantzun guk. «Zuen helbidea?». Gure taldeko emakume batek: «Nire herria neure fardela da». Urte luzez itxaron dugu Atenasko aireportuan. Mutil gazte bat neska batekin ezkondu da, baina ez dute logelarik ezkontza gauerako. Galdetu du: «Non kenduko diot birjintasuna?». Irri egin, eta esan diogu: «Galdera hori lekuz kanpo dago, gazte». Gure arteko teorialariak dio: «Ez hiltzeko hiltzen dira. Oharkabea hiltzen dira». Literatoak dio: «Gure kanpamendua erori egingo da, ezinbestean». «Zer nahi dute gugandik?». Atenasko aireportua biztanlez aldatzen zen etengabe. Hantxe gu, ordea, aulki moduan aulkien gainean, itsasoaren zain. Zenbat urtez, Atenasko aireportu?

**Azaroa**

Eta gero —egokituko zait alde egitea—  
geratuko da zerbait  
nirea  
nire munduan—  
isiltasun-arrasto mehe bat  
ahots guztien artean—  
zuritasun-hats fin bat  
urdin guztiaren bihotzean—

Eta azaroko arrats batean  
neskatila airos batek  
krisantemoak salduko ditu ugari  
kale-kantoi batean  
eta han izango dira izar  
izoztu berde urrunak —  
Negar egingo du inork  
auskalo non —auskalo non—  
Krisantemoak bilatuko ditu inork  
niretzat  
munduan  
egokitzen zaidanean itzulerarik gabe  
alde egin beharra.

### Barbara

Oroit izan Barbara  
atertu gabe egun hartan Bresten  
eta hi han hindonan irritsu  
arrai pozik eurimalko  
euripean  
Oroit izan Barbara  
atertu gabe Bresten gainean  
eta nik gurutzatu hindunan Siam karrikan  
hi irritsu  
ni ere irritsu  
hi ezagutzen ez hindunala  
hik ezagutzen ez nindunala  
Oroit izan  
oroit izan egun hura bederen  
ez utz oroitetik  
gizonezko bat atariaren lehorrean  
eta hire izena deitu  
Barbara  
eta hi harengana euripean arinik  
eurimalko pozik arrai  
haren besoetara amildu  
Oroit hartaz Barbara  
eta ez nazan hastia hitanoz egiten badinat  
nik hi erraten zionat maite dudan orori  
behin baino ez ikusiagatik  
nik hi erraten zienat elkar maite duten orori  
ez ezagutuagatik  
Oroit izan Barbara  
ez utz oroitetik  
euri zintzo eta zoriontsu hura  
hire aurpegi zorionsuan  
hiri zoriontsu honetan  
itsaso gainera datorren euria  
Arsenalaren gainera  
Ouessant-eko ontziaren gainera  
O Barbara

gerra zorakeria galanta  
zer egin haiz geroztik  
burdinazko euri honen pean  
suzko altzairuzko eta odolezko euri honen pean  
zer egin zunan besotan hertsatu hindunana  
maitekiro  
hila dun desagertua ala bizirik oraino  
O Barbara  
atertu gabe ari du Bresten  
orduaz bezala  
baina ez din antzik dena suntsitu diton  
dolu euria dun penatua izugarria  
ez dun altzairuzko eta odolezko eraso ere  
hodei hutsak ditun zapartaka  
zakurrak iduri  
Bresteko uraren joanean  
usteltzera urrun doazin zakurrak  
urrun guztiz urrun  
aztarnarik iraun ez duen  
Brestetik.



### Coca-Cola bat zurekin hartzea

are dibertigarriagoa da Donostia, Irun, Hendaia, Miarritze, Baionara joatea baino  
edo goragalea edukitzea Travesera de Gracian Bartzelonan  
partez zure alkandora laranjarekin San Sebastian hobe eta alaiago bat dirudizulako  
partez maite zaitudalako, partez jogurtak maite dituzulako  
partez urkien inguruko tulipa laranja fluoreszenteengatik  
partez jendearen eta estatuaren aurreko gure irribarre zuhurrengatik  
zurekin nagoenean zaila zait sinesten egon daitekeenik estatuak bezain zera solemne  
eta ezatseginki behin betikorik eta bitartean hemen parean New Yorkeko  
4etako argi epelean elkarrekin noraezean goaz  
begi-ordeen bidez arnasten duen zuhaitz bat nola  
eta badirudi erretratu erakusketak ez duela aurpegi bakar bat ere, soilik margoa  
bat-batean galdetzen diozu zeure buruari zergatik arraio pintatu zituzten

begiratzen

zaitut eta nahiago nuke zuri begiratu munduko erretratu guztiei baino  
salbu eta zenbaitetan akaso *Zaldun poloniarrari* eta tira Frick-en dago  
zeinera Jainkoari eskerrak ez baitzara joan oraindik eta horrela elkarrekin joan  
gaitezke estreinakoz eta hain galanki mugitzen zara ezen futurismoa konpontzen duzun  
etxean sekula pentsatzen ez dudana bezala *Eskailera jaisten ari den biluzian* edo  
entsegu batean liluratzen ninduten Leonardoren edo Michelangeloren marrazki hartan  
eta zer mesede egiten die inpresionistei haien inguruko ikerketa guztiek  
ez bazuten inoiz aurkitu pertsona egokirik zuhaitzen gerizpean posatzeko eguzkia  
sartzen ari zela edo bestela Marino Marinik ez zuenean aukeratu zalduna  
zaldiaren kuido berberaz

badirudi denek galdu zutela esperientzia miragarri bat edukitzeko aukera  
baina nik ez dut alferrik galduko eta horregatik ari natzaizu hau guztia kontatzen

**Eta, batik bat, ez ahaztu**

Eta, batik bat, ez ahaztu hau dela  
bizitzea egokitu zaizun denbora;  
ez beste bat, eta ez ezazu desertatu,  
harro nahiz koldar, guztiek bezala  
borrokan parte hartu beharra sentitzean,  
zure tokia zerorrek baizik ezin baituzu bete.

Haz zaitetz, hori bai, tribuaren hizkuntzan,  
hitzez hitz, erabat fidel,  
baita zure jendea ez etsitzera  
akuilatzen duen errebolta-espirituan ere,  
zukan bete dadin, pixkana-pixkana, geroa,  
eta inoiz ez zaitezen egon babesgabe eta bakar.

### **Hildakoak oro, horditurik**

Hildako guztiak horditurik daude euri zaharrez eta lohiaz  
Lofotengo hilerri arrotzean.  
Urtzaldiko erlojua tik-tak ari da urrunean  
Lofotengo zerraldo txiroen bihotzean.

Eta bedatse beltzak barrendutako zuloei esker,  
beleak gizen dira gizakien okela hotzez;  
Eta haur-ahotseko haize meharrari esker  
lo goxoan dira Lofotengo hildakoak.

Ez ditut, ziur asko, sekula ikusiko  
ez itsasoa ez Lofotengo hilobiak  
eta, alabaina, sentitzen naiz lurreko bazter urrun hori  
eta haren nahigabea oro maiteko banitu bezala.

Zuek aienatuak, zuek suizidak, zuek uxatutakoak  
Lofotengo hilerri arrotzean  
—izenak belarrian jotzen nau, arrotz eta goxo—,  
esadazue, egiazki lo al zaudete, lo al zaudete?

Zoroagorik kontatzen ahal zenidake,  
ene kopa zilarreztatua betetzen duen klarete eder horrek,  
istorio xarmantagoak edo ez hain eroak;  
utzi ni bakean zure Lofotenekin.  
Eguraldia ederra da. Sutondoan goxoki luzatzen da  
hilabete melankoliatsuenaren ahotsa.  
— Ah hildakoak, Lofotengoak barne! —  
Hildakoak, hildakoak, finean, ni baino biziagoak dira.

### **Konfiantzak**

mahaira jarri eta idazten du  
«poema honekin ez duzu boterea hartuko» dio  
«bertso hauekin ez duzu Iraultza egingo» dio  
«ezta milaka bertsorekin ere duzu Iraultza egingo» dio

areago: bertso horiek ez diote balio izango  
peoiak maisu-maistrak egurgileak hobeto bizi daitezen  
hobeto jan dezaten edo berak hobeto jan dezan bizi dadin  
ezta andre bat maitemintzeko ere diote balioko

ez du haiekin sosik irabaziko  
ez da haiekin doan sartuko zinemara  
ez diote arroparik emango haien truke  
ez du ardo edo tabakorik lortuko trukean

ezta papagairik bufandarik barkurik  
zezenik aterkirik lortuko haien truke  
haiengatik balitz euriak busti egingo du  
ez du barkamenik edo graziarik eskuratuko trukean

«poema honekin ez duzu boterea hartuko» dio  
«bertso hauekin ez duzu Iraultza egingo» dio  
«ezta milaka bertsorekin ere duzu Iraultza egingo» dio  
mahaira jarri eta idazten du

### Laino

Ez da izanen deus ere ez dena  
laino bat. Hala dira katedralak  
—harri eskergan biblia kristalak—  
lur jo beharrak. *Odisea* zeina  
itsaso lez den aldatzen. Halatsu  
baita aldiro besterik. So egin,  
ispiluan horra isla desberdin,  
eguna labirinto zalantzatsu.  
Doazenak gara. Gaua deserri  
lainotza sartaldean aienatzen  
dugu irudi. Ez baita nekatzen  
arrosa bihurtzen arrosa berri.  
Laino zara, itsaso, ahanztura.  
Orobat zara galdu duzun hura.

### Maitasun mutua

Gorroto bazintut, nire gorrotoa nizuke emanen  
hitzetan, zalantzagabea, mardula;  
baina maite zaitut, eta nire maitasunak ez du izanen  
gizonen hizkera iluna sekula!

Zuk nahi zenuke alarau bihurtua,  
eta hain dator sakonetik, ezen haren su erauntsia  
apaldua baita, ahuldua,  
oraindik ez denean ez zintzurrera ez bularrera iritsia.

Egiaz naiz urmael urez arras ase  
eta zuk, halere, iturri idortzat naukazu, maitea.  
Hona errua: nire aho isil hitz gabea,  
heriotza krudelean sartzea bezalakoxea!

**Quand vous serez bien vieille**

Arras zaharra zarelarik  
eta ni ordurako hila  
arrats batez ordu bereziak  
deskubrituko dituzu

sartaldeko ekien urrina  
aire gautuaren ilunaren sakona  
itzulerarik gabeko karriketetan

nora ez eternalean ibiliko zara une zoriontsuak  
islatzen dituen ispiluaren bila

—itsasoa urdin  
gure haragian eguzkia eta desioa—

denbora kristalean hiltzen delarik  
drogatu gintuzten musikak entzungo dituzu  
berpizten gintuzten eguneroko azantzak

xaboizko uren  
leize ikaragarrietaranzko  
isuri-hotsak

musika-kutxak postal zerebralak  
eta ispilu finkoan gure bizitzaren iragarkia  
hortz zuri eta azal doratuekin  
gazteak antzinakoak zoriontsuak garaiezinak

baina ez daitezela zure begiak goibel  
eta ispiluak iraungi haien errealitatea eta zure desira  
zahar eta bakarti kausituko zinelako  
etsipenak lokartutako begiekin

haizeak  
larrazken petral baten orbela darama

arras zaharra zarelarik  
eta ni ordurako hila  
puskatu ispiluak erretratuak oroitzapenak  
jantzi koristaren kuleroak eta akantozko diadema  
atera biluzik balkoira eta egiozu txiza munduari  
leiho itxiek zu fusilatu baino lehen.

### **Udazken melankolia**

Ez zait jardirik zimeltzen.  
Ez dut bat ere.  
Ez dut etxerik haizeek astin dezaten uluka.  
Ez dakarkit minik lainorik beltzenak,  
gutxitan egiten baitut so zerura.  
Ez dut ja urre-izarririk desira.  
Aski dut argiontzi txiki bat.  
Ez zait engainu poztea, ez desengainu itxoitea.  
Udazkenak ez nau mintzen,  
ez zait jardirik zimeltzen...

### **XCVIII**

Hilen sablezko ahots soilez auhenka  
hasi da orduan Landa

hil horiek oro erail horiek oro hil-kanpai  
eta hil-mihiserik gabe elur hori guzia

astiro hain astiro orgen errotak hodeien  
luzeran oraino ere errota zuriak bezala

ehorzten dira urrunetan eta haien itzalak  
tai gabe estiratzen dira

lauan leherturiko hilak arratsaren hegietatik dabilta  
tai gabe isiltzen den gure mendearekin batera

batzuetan bat batean han urrunean gelditzen landa  
eta gero berriz luzatzen dolu kanta batekin

hil garai bat da bukatzen ez den mende hau  
ez da benedikatu behar

abandonuz baino

### **Zergatik suntsitu zuten aberria**

Pertsona batek bere aberriari traizio egin diezaiokeela uste duzue?  
Bere ogia jan eta bere ura edan zenuten  
Ba ote dago munduan ezer aberria baino agurgarriagorik?  
Jaunok, zergatik suntsitu zenuten aberria?

Osoro birrindu zuten  
ileetatik oratuta, arrastaka erabili zuten  
eta desleialari eskaini zioten: Tori, hemen duzu...  
Jaunok, zergatik suntsitu zenuten aberria?

Aberria esku eta oinetatik kateatu zuten,  
eta lurrera jaurti larrugorrian  
Texasko sarjentu bat bular gainean eseri zitzaion  
Jaunok, zergatik suntsitu zenuten aberria?

Baina iritsiko da dena bestelakoa izango den eguna,  
iritsiko da kontuak kitatuko ditugun eguna  
iritsiko da zera galdetuko dizuegun eguna:  
Jaunok, zergatik suntsitu zenuten aberria?



## **Jatorrizkoak**

### **The Old Playhouse**

You planned to tame a swallow, to hold her  
In the long summer of your love so that she would forget  
Not the raw seasons alone, and the homes left behind, but  
Also her nature, the urge to fly, and the endless  
Pathways of the sky. It was not to gather knowledge  
Of yet another man that I came to you but to learn  
What I was, and by learning, to learn to grow, but every  
Lesson you gave was about yourself. You were pleased  
With my body's response, its weather, its usual shallow  
Convulsions. You dribbled spittle into my mouth, you poured  
Yourself into every nook and cranny, you embalmed  
My poor lust with your bitter-sweet juices. You called me wife,  
I was taught to break saccharine into your tea and  
To offer at the right moment the vitamins. Cowering  
Beneath your monstrous ego I ate the magic loaf and  
Became a dwarf. I lost my will and reason, to all your  
Questions I mumbled incoherent replies. The summer  
Begins to pall. I remember the rudder breezes  
Of the fall and the smoke from the burning leaves. Your room is  
Always lit by artificial lights, your windows always  
Shut. Even the air-conditioner helps so little,  
All pervasive is the male scent of your breath. The cut flowers  
In the vases have begun to smell of human sweat. There is  
No more singing, no more dance, my mind is an old  
Playhouse with all its lights put out. The strong man's technique is  
Always the same, he serves his love in lethal doses,  
For, love is Narcissus at the water's edge, haunted  
By its own lonely face, and yet it must seek at last  
An end, a pure, total freedom, it must will the mirrors  
To shatter and the kind night to erase the water.

## مَطَارُ أَثِينَا

مَطَارُ أَثِينَا يُوزَعُنَا لِلْمَطَارَاتِ. قَالَ الْمُقَاتِلُ: أَيْنَ أُقَاتِلُ؟ صَاحَتْ بِهِ  
 حَامِلٌ: أَيْنَ أَهْدِيكَ طِفْلَكَ؟ قَالَ الْمُوْظَفُ: أَيْنَ أُوْظَفُ مَالِي؟ فَقَالَ  
 الْمُتَقَفُّ: مَالِي وَمَالِكَ؟ قَالَ رِجَالُ الْجَمَارِكِ: مِنْ أَيْنَ جِئْتُمْ؟ أَجَبْنَا: مِنْ  
 الْبَحْرِ. قَالُوا: إِلَى أَيْنَ تَمْضُونَ؟ قُلْنَا: إِلَى الْبَحْرِ. قَالُوا: وَأَيْنَ عَنَاوِينُكُمْ؟  
 قَالَتْ امْرَأَةٌ مِنْ جَمَاعَتِنَا: بُقَجْتِي قَرِيَّتِي. فِي مَطَارِ أَثِينَا انْتَضَرْنَا سِنِينًا. تَزَوَّجَ  
 شَابٌ فَتَاةً وَلَمْ يَجِدْ غُرْفَةً لِلزَّوْجِ السَّرِيعِ. تَسَاءَلَ: أَيْنَ أَفْضُ بَكَارَتَهَا؟  
 فَضَحِكْنَا وَقُلْنَا لَهُ: يَا فَتَى، لَا مَكَانَ لِهَذَا السُّؤَالِ. وَقَالَ الْمُحَلِّلُ فِينَا:  
 يَمُوتُونَ مِنْ أَجْلِ الْأَيِّمُوتُوا. يَمُوتُونَ سَهْوًا. وَقَالَ الْأَدِيبُ: مُخَيَّمْنَا سَاقِطٌ  
 لَا مَحَالَةَ. مَاذَا يُرِيدُونَ مِنَّا؟ وَكَانَ مَطَارُ أَثِينَا يُغَيِّرُ سُكَّانَهُ كُلَّ يَوْمٍ. وَنَحْنُ  
 بِقَيْنَا مَقَاعِدَ فَوْقَ الْمَقَاعِدِ نَنْتَظِرُ الْبَحْرَ. كَمْ سَنَةً يَا مَطَارَ أَثِينَا!...

### **Novembre**

E poi – se accadrà ch'io me ne vada  
resterà qualchecosa  
di me  
nel mio mondo –  
resterà un'esile scia di silenzio  
in mezzo alle voci –  
un tenue fiato di bianco  
in cuore all'azzurro –

Ed una sera di novembre  
una bambina gracile  
all'angolo d'una strada  
venderà tanti crisantemi  
e ci saranno le stelle  
gelide verdi remote –  
Qualcuno piangerà  
chissà dove – chissà dove –  
Qualcuno cercherà i crisantemi  
per me  
nel mondo  
quando accadrà che senza ritorno  
io me ne debba andare.

### **Barbara**

Rappelle-toi Barbara  
Il pleuvait sans cesse sur Brest ce jour-là  
Et tu marchais souriante  
Épanouie ravie ruisselante  
Sous la pluie  
Rappelle-toi Barbara  
Il pleuvait sans cesse sur Brest  
Et je t'ai croisée rue de Siam  
Tu souriais  
Et moi je souriais de même  
Rappelle-toi Barbara  
Toi que je ne connaissais pas  
Toi qui ne me connaissais pas  
Rappelle-toi  
Rappelle-toi quand même ce jour-là  
N'oublie pas  
Un homme sous un porche s'abritait  
Et il a crié ton nom  
Barbara  
Et tu as couru vers lui sous la pluie  
Ruisselante ravie épanouie  
Et tu t'es jetée dans ses bras  
Rappelle-toi cela Barbara  
Et ne m'en veux pas si je te tutoie  
Je dis tu à tous ceux que j'aime  
Même si je ne les ai vus qu'une seule fois  
Je dis tu à tous ceux qui s'aiment  
Même si je ne les connais pas  
Rappelle-toi Barbara  
N'oublie pas  
Cette pluie sage et heureuse  
Sur ton visage heureux  
Sur cette ville heureuse  
Cette pluie sur la mer  
Sur l'arsenal  
Sur le bateau d'Ouessant  
Oh Barbara

Quelle connerie la guerre  
Qu'es-tu devenue maintenant  
Sous cette pluie de fer  
De feu d'acier de sang  
Et celui qui te serrait dans ses bras  
Amoureusement  
Est-il mort disparu ou bien encore vivant  
Oh Barbara  
Il pleut sans cesse sur Brest  
Comme il pleuvait avant  
Mais ce n'est plus pareil et tout est abimé  
C'est une pluie de deuil terrible et désolée  
Ce n'est même plus l'orage  
De fer d'acier de sang  
Tout simplement des nuages  
Qui crèvent comme des chiens  
Des chiens qui disparaissent  
Au fil de l'eau sur Brest  
Et vont pourrir au loin  
Au loin très loin de Brest  
Dont il ne reste rien.

### Having a coke with you

is even more fun than going to San Sebastian, Irún, Hendaye, Biarritz, Bayonne  
or being sick to my stomach on the Travesera de Gracia in Barcelona  
partly because in your orange shirt you look like a better happier St. Sebastian  
partly because of my love for you, partly because of your love for yoghurt  
partly because of the fluorescent orange tulips around the birches  
partly because of the secrecy our smiles take on before people and statuary  
it is hard to believe when I'm with you that there can be anything as still  
as solemn as unpleasantly definitive as statuary when right in front of it  
in the warm New York 4 o'clock light we are drifting back and forth  
between each other like a tree breathing through its spectacles  
and the portrait show seems to have no faces in it at all, just paint  
you suddenly wonder why in the world anyone ever did them

I look

at you and I would rather look at you than all the portraits in the world  
except possibly for the *Polish Rider* occasionally and anyway it's in the Frick  
which thank heavens you haven't gone to yet so we can go together for the first time  
and the fact that you move so beautifully more or less takes care of Futurism  
just as at home I never think of the *Nude Descending a Staircase* or  
at a rehearsal a single drawing of Leonardo or Michelangelo that used to wow me  
and what good does all the research of the Impressionists do them  
when they never got the right person to stand near the tree when the sun sank  
or for that matter Marino Marini when he didn't pick the rider as carefully  
as the horse

it seems they were all cheated of some marvelous experience  
which is not going to go wasted on me which is why I'm telling you about it

**I, sobretot, no oblidis**

I, sobretot, no oblidis que el teu temps  
és aquest temps que t'ha tocat de viure:  
no un altre, i no en desertis,  
orgullós o covard, quan et sentis cridat  
a prendre part, com tothom, en la lluita,  
car el teu lloc només tu pots omplir-lo.

Creix, això sí, en la llengua de la tribu,  
mot a mot, fidelíssim,  
i en l'esperit de revolta que alerta  
la teva gent contra la defallença,  
perquè en tu s'acompleixi, poc a poc, el futur  
i mai no et trobis desvalgut i sol.

**Tous les morts sont ivres...**

Tous les morts sont ivres de pluie vieille et sale  
Au cimetière étrange de Lofoten.  
L'horloge du dégel tictaque lointaine  
Au cœur des cercueils pauvres de Lofoten.

Et grâce aux trous creusés par le noir printemps  
Les corbeaux sont gras de froide chair humaine ;  
Et grâce au maigre vent à la voix d'enfant  
Le sommeil est doux aux morts de Lofoten,

Je ne verrai très probablement jamais  
Ni la mer ni les tombes de Lofoten  
Et pourtant c'est en moi comme si j'aimais  
Ce lointain coin de terre et toute sa peine.

Vous disparus, vous suicidés, vous lointaines  
Au cimetière étranger de Lofoten  
— Le nom sonne à mon oreille étrange et doux,  
Vraiment, dites-moi, dormez-vous, dormez-vous ?

— Tu pourrais me conter des choses plus drôles  
Beau claret dont ma coupe d'argent est pleine  
Des histoires plus charmantes ou moins folles;  
Laisse-moi tranquille avec ton Lofoten.

Il fait bon. Dans le foyer doucement traîne  
La voix du plus mélancolique des mois.  
— Ah ! les morts, y compris ceux de Lofoten —  
Les morts, les morts sont au fond moins morts que moi.



### **Confianzas**

se sienta a la mesa y escribe  
«con este poema no tomarás el poder» dice  
«con estos versos no harás la Revolución» dice  
«ni con miles de versos harás la Revolución» dice

y más: esos versos no han de servirle para  
que peones maestros hacheros vivan mejor  
coman mejor o él mismo coma viva mejor  
ni para enamorar a una le servirán

no ganará plata con ellos  
no entrará al cine gratis con ellos  
no le darán ropa por ellos  
no conseguirá tabaco o vino por ellos

ni papagayos ni bufandas ni barcos  
ni toros ni paraguas conseguirá por ellos  
si por ellos fuera la lluvia lo mojará  
no alcanzará perdón o gracia por ellos

«con este poema no tomarás el poder» dice  
«con estos versos no harás la Revolución» dice  
«ni con miles de versos harás la Revolución» dice  
se sienta a la mesa y escribe

### **Nubes**

No habrá una sola cosa que no sea  
una nube. Lo son las catedrales  
de vasta piedra y bíblicos cristales  
que el tiempo allanará. Lo es la Odisea,  
que cambia como el mar. Algo hay distinto  
cada vez que la abrimos. El reflejo  
de tu cara ya es otro en el espejo  
y el día es un dudoso laberinto.  
Somos los que se van. La numerosa  
nube que se deshace en el poniente  
es nuestra imagen. Incesantemente  
la rosa se convierte en otra rosa.  
Eres nube, eres mar, eres olvido.  
Eres también aquello que has perdido.

### **El amor que calla**

Si yo te odiara, mi odio te daría  
en las palabras, rotundo y seguro;  
¡pero te amo y mi amor no se confía  
a este hablar de los hombres tan oscuro!  
Tú lo quisieras vuelto un alarido,  
y viene de tan hondo que ha deshecho  
su quemante raudal, desfallecido,  
antes de la garganta, antes del pecho.  
Estoy lo mismo que estanque colmado  
y te parezco un surtidor inerte.  
¡Todo por mi callar atribulado  
que es más atroz que entrar en la muerte!

### Quand vous serez bien vieille

Cuando seas muy vieja  
y yo me haya muerto  
descubrirás una tarde las horas  
especiales  
    el aroma de los soles ponientes  
lo profundo oscuro del aire  
anohecido en las calles sin retorno  
  
vagarás et ernamente en busca del espejo  
que devuelve instantes felices  
    —de azul el mar  
en nuestra carne sol y deseo—  
  
ante la muerte del tiempo en el cristal  
oirás las músicas que nos drogaron  
los ruidos cotidianos que nos resucitaban  
    deslices  
de aguas de jabón hacia simas  
    terribles  
  
cajas de música postales cerebrales  
y en el espejo fijo el spot de nuestra vida  
con dentaduras blancas y pieles doradas  
jóvenes antiguos felices invencibles  
  
mas no dejes que oscurezcan tus ojos  
y el espejo extinga su realidad y tu deseo  
porque te verías vieja y solitaria  
con los ojos dormidos por la angustia  
    el viento  
que se lleva las hojas de un otoño horroroso  
  
cuando seas muy vieja  
y yo me haya muerto  
rompe espejos retratos recuerdos  
ponte bragas de corista diadema de acanto  
sal desnuda al balcón y méate en el mundo  
antes que te fusilen las ventanas cerradas.

### **Herbst-Melancholie**

Mir welkt kein Garten.  
Ich habe keinen.  
Kein Haus, durch das Oktoberwinde weinen.  
Mir tut das schwärzeste Gewölk nicht weh,  
Weil ich so selten nur den Himmel seh.

Ich ziel nicht mehr auf goldne Himmelssterne.  
Mich tröstet eine kleine Gaslaterne.  
Mich täuscht kein Glück, enttäuscht kein Warten.  
Mich schmerzt kein Herbst,  
Mir welkt kein Garten...

### **XCVIII**

La lana plànher alavetz de vutz simpla  
de mòrt de vutz de sable

D'aqueths mòrts tots aquí d'aqueths tuats shens campana  
ni susari nat aquesta niu

hòrt lentament e lentament las arròdas deus bròs  
de long los crums e com arròdas blancas de darrèr

qu'i sepelissen dens los lunhs e sas ombras  
s'eslongan a perpeta

los mòrts esplatuishats que rasan lo desser  
dab lo sègle nòst dont se cara shens d'acaba

la lana lunh mès lunh còp sec que s'estanca  
a bèths còps e que s'alonga après e nada canta trista

temps de mòrt aquest sègle dont s'acaba pas  
lo cau pas benedir

d'abandon sonque

### Bu vatana nasil kiydilar

Insan olan vatanini satar mi?  
Suyun içip ekmeğini yediniz  
Dünyada vatandan aziz şey var mi?  
Beyler bu vatana nasil kiydiniz?

Onu didik didik didiklediler,  
saçlarından tutup sürüklediler:  
götürüp kâfire“ Buyur...” dediler.  
Beyler bu vatana nasil kiydiniz?

Eli kolu zincirlere vurulmuş,  
vatan çirilçiplak yere serilmiş.  
Oturmuş göğsüne Teksali çavuş  
Beyler bu vatana nasil kiydiniz?

Günü gelir çarh düzüne çevrilir,  
günü gelir hesabınız çevrilir,  
günü gelir sualiniz sorulur:  
Beyler bu vatana nasil kiydiniz?

ERANTZUNA:  
Jorge Luis Borges - Juan Garzia - Laino  
Mahmud Darwish - Xabi Borda - Atenasko aireportuan  
Kamala Das - Joxe Mari Berasategi Zurutuza- Antzoki zaharra  
Juan Gelman - Bego Montorio - Konfiantzak  
Nazim Hikmet - Gotzon Barandiaran - Zergatik suntsitu zuten aberria  
Mascha Kaléko - Ainhoa Mendiluze Ormaetxea - Udzaken melankolia  
Bernat Manciet - Itxaro Borda - XCVIII  
Miquel Martí i Pol - Aitor Blanco Leoz - Era, barik bat, ez ahaztu  
Oscar Milosz - Patxi De Vicente - Hildakakoak oro, horditurik  
Gabriela Mistral - Uxue Rey - Matasun mutua  
Frank O'Hara - Beñat Sarasola - Coca Cola bat zurekin hartzea  
Antonia Pozzi - Joannes Jaurégi - Azarua  
Jacques Prévert - Koldo Izaguirre - Barbara  
Manuel Vázquez Montalbán - Jon Alonso - Quand vous serez bien vieille